AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Ogasun eta Finantza Sailari baimena ematea.

Ogasun eta Finantza Sailari baimena ematen zaio, Dekretu honek agintzen duena betetzeko beharrezko izan daitezen xedapenak eman eta erabakiak hartzeko.

*Bigarrena.*– Indarra hartzea.

Dekretu honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun berean hartuko du indarra.

Gasteiz, 1990.eko urriak 16.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Autorización al Departamento de Hacienda y Finanzas.

Se autoriza al Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar las disposiciones y resoluciones necesarias para la ejecución de lo preceptuado en el presente Decreto.

*Segunda.*– Entrada en vigor.

Este decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de octubre de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

## LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 2998

AGINDUA, 1990.eko urriaren 9koa, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuarena, 1990.eko urriaren 28ko hauteskundeetan langileek parte hartu ahal dezaten arauak jartzen dituena.

Eusko Legebiltzarra ezabatzeari buruzko irailaren 1eko 227/1990 Dekretuz Hauteskundeetarako deia egin eta gero, premiazkoa da Sail honek beharrezko neurriak hartzea, langilegoak deialdi horretan parte hartu ahal dezan.

Hartarako, eta Langileen Estatutuaren 37.3 atalak zehazten duena kontutan izanik eta Lan Harremanetarako Euskadiko Batzordeari erizpena eskatu ondoren, bidezkoa da indarrean dagoen legeria gauzatzea, Autonomi Estatutuaren 12.2 atalean xedatutakoaren arabera; ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– 1990.eko urriaren 28ko hauteskundeetan hautesle izan daitezen langileek, egun hortan Langileen Estatutuari buruzko martxoaren 10eko 8/80 Legearen 37.1 atalean ohartemandako asteroko atseden egunaz baliatzerik ez badute, euren hautes betebeharrak bete ahal izateko, ordaindutako baimena hartzeko eskubidea izango dute; horretarako, honela zehaztuko da baimen horren iraupena:

a) Langileen ohizko, legezko edo itunepeko lanaldia eta hauteslekuak irekitzeko orduak oso-osoan berdinak direnean, ordaindutako baimena lau ordukoa izango da.

b) Langileen lanaldiaren orduak eta hauteslekuak irekitzeko orduak zati batetan berdinak direnean, baterako orduak lau edo gehiago baldin badira, baimena lau ordukoa izango da; baterako orduak lau baino gutxiago baldin badira, lanaldiko ordutegia eta hauteslekuak irekitzeko orduak bat datozen orduetara mugatuko da baimena.

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 2998

ORDEN de 9 octubre de 1990, del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dictan normas para que los trabajadores puedan participar en las elecciones de 28 de octubre de 1990.

Habiéndose convocado Elecciones por Decreto 227/1990, de 1 de septiembre, por el que se disuelve el Parlamento Vasco, se hace preciso que por este Departamento se adopten las medidas necesarias para que el personal laboral pueda participar en dicha consulta.

A este fin, y habida cuenta de lo que determina el artículo 37.3 del Estatuto de los Trabajadores, previa solicitud de informe al Consejo de Relaciones Laborales de Euskadi, procede llevar a efecto la ejecución de la legislación vigente a tenor de lo dispuesto en el artículo 12.2 del Estatuto de Autonomía; en su virtud

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Los trabajadores que teniendo la condición de electores respecto de la consulta electoral del día 28 de octubre de 1990, no disfruten en dicha fecha del descanso semanal previsto en el artículo 37.1 de la Ley 8/80, de 10 de marzo, del Estatuto de los Trabajadores, tendrán derecho a un permiso retribuido para el cumplimiento de sus deberes electorales, cuya duración se determinará como sigue:

a) Los trabajadores cuya jornada normal, sea legal o convenida, esté incluida íntegramente dentro del horario de apertura de los colegios electorales, tendrán un permiso retribuido de cuatro horas de duración.

b) Los trabajadores cuya jornada esté incluida parcialmente dentro del horario de apertura de los colegios electorales, si la coincidencia es de cuatro horas o más el permiso será de cuatro horas de duración; si la coincidencia se produce en menos de cuatro horas, el permiso se reducirá al tiempo que coincidan el horario laboral y el horario de apertura de los colegios electorales.

c) Aurreko kasuetan, enpresan ezarritako ohizko, legezko edo itunepeko lanaldia baino laburragoa egiten duten langileentzat, enpresaren ohizko lanaldiaren eta beraiek egiten dutenaren heinekoa izango da ordaindutako baimena.

d) Hauteslekuak irekita egoteko ordutegiarekin, ez osoan, ez zati baten, bat ez datorren ordutegia daukaten langileek ez dute ordaindutako baimenik izateko eskubiderik.

*2. atala.*— Aurreko atalean ohartemandako kasuetan, lanaren antolaketa oinarri dela, enpresariari dagokio, langileen legezko ordezkarien txostena jaso ondoren, langileek botua ematera joateko duten baimena nola banatu.

*3. atala.*— Hautesmahaietako kide edo ikuskatzaile direla egiazta dezaten langileek hauteskunde egunean egun osoko ordaindutako baimena izateko eskubidea daukate, baita hauteskunde biharamunean lanaldia bost orduz gutxitzeko eskubidea ere. Eskudun direla egiazta dezatene, hauteskunde egunean ordaindutako baimena izango dute. Hauetako langileren batek gaueko txandan lan egin behar badu hauteskunde aurreko gauean, txanda aldatu egin beharko dio dagokion enpresak, langileak berak horrela eskatuta.

*4. atala.*— Aipatu den lanaldiaren gutxitzea, Langileen Estatutuko 37.3 atalean xedatutakoaz bat etorriz, langileek kontzeptu guztiegatik jasotzen duten lansaria gutxitu gabe egingo da; bozketa ziurtagiria aurkeztea nahiko izango da horren zurigarri, edo, hala balitz, dagokion hautesmahaiaren egiaztapena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean hartuko du indarra Agindu honek.

Gasteiz, 1990.eko urriak 9.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

c) En los supuestos anteriores, cuando se trate de trabajadores que realicen una jornada inferior a la normal, sea ésta legal o convenida, establecida en la empresa, el permiso retribuido se reducirá en proporción a la relación entre su jornada de trabajo y la normal de la empresa.

d) Los trabajadores que tengan una jornada cuyo horario no coincida, ni total ni parcialmente, con el establecido en los colegios electorales no tendrán derecho a permiso retribuido.

*Artículo 2.*— En los supuestos previstos en el artículo anterior, corresponderá al empresario, en base a la organización del trabajo, la distribución del periodo en que los trabajadores dispongan del permiso para acudir a votar, previo informe de los representantes legales de los trabajadores.

*Artículo 3.*— Los trabajadores que acrediten su condición de miembros de las mesas electorales, o interventores, tendrán derecho a un permiso retribuido durante el día de la votación así como a una reducción de cinco horas en la jornada del día inmediatamente posterior a la consulta. Quienes acrediten su condición de apoderados dispondrán de un permiso retribuido durante el día de la votación. Si alguno de estos trabajadores hubiera de trabajar en el turno de noche en fecha inmediatamente anterior a la jornada electoral, la empresa afectada deberá cambiarle el turno, previa petición del interesado.

*Artículo 4.*— La reducción prevista de la jornada laboral se realizará sin merma alguna de retribución que por todos los conceptos vinieren obteniendo los trabajadores, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 37.3 del Estatuto de los Trabajadores, sirviendo como justificación adecuada la presentación de la certificación de voto, o en su caso, la acreditación de la mesa electoral correspondiente.

La presente Orden entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de octubre de 1990.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.